

**AUTOAK.** Ia 4.600 milioi euro gastatu beharko ditu egokitzeko

# 35.000 langile kaleratuko ditu Fordek munduan, eta bost lantegi itxiko AEBetan

Biziberritze Planeko langile murrizketak Europan ez du eraginik izango

Agentziak | DEABORN - MADRID

Ford taldeak, munduko bigarren auto ekoizleak, berregituratzeko plan zabala iragarri zuen atzo. Horren ondorioz, mundu osoan 35.000 langile kaleratuko ditu, eta Amerikako Estatu Batuetan (AEB) bost lantegi itxiko. Urtero milioi bat auto gutxiago egin ahal izango ditu, gainera.

Planaren helburu nagusia konpainiak merkatuan duen toki indartzea eta emaitza ekonomikoak hobetzea izango da. Neurriak finantzatzeko, 4.592 milioi euro beharko dituela espero du Fordek.


Biziberritze Plana —halaxe izendatu du enpresak— William Clay Ford Juniorrek aurkeztu zuen, konpainiako presidentea. Hark azpimarratu zuenez, zehaztutako helburu batzuk lortzen «zailak» dira, eta, batzuetan, hartutako neurriak «mingarriak».

Kaleratuko dituen 35.000 langileetatik 21.500 AEBetakoak izango dira. Gainontzeko 13.500 langileak, berriz, beste herrialde batzuetakoak izango dira, baina ez Europan dituen lantegietakoak.

Europan lantegi bat itxia lehendik erabakia zuten: 2000. urtean eginiko planari jarraituz, Ingalaterrako Dagenham herriko lantokia itxiko dute.

Fordek Hego Amerikan duen estrategia aztertu eta egokituko du, eta luxuzko markak eta filial finantzarioa berrikusiko ditu, planean zehaztu dutenez.

Emaitza ekonomikoei begira, planaren bidez gastuak 2.240



JEFF KOWALSKY / EPA  
Bill Ford Jr., Ford konpainiako presidentea.

milioi euro murriztea espero dute. Emaitza operatibok, berriz, 10.080 milioi euroraino iritsi beharko dute 2005. urterako.

## Langile kopurua %10 murriztuko du General Motorsek

Munduko lehen auto ekoizleak, General Motorsek, AEBetan eta Europan langile kopurua %10 murriztuko duela jakinarazi du, gastuei aurre egin ahal izateko.

Konpainiarentzat lanean ari diren behargin administratiboen kopurua ere neurri berean jaitziko du AEBetan. 5.000 langile inguru kaleratu dituzte, sustaturiko lanuzteak eta erretirato aurerratuak erabilita.

Europan produkzioa murriztuko du Astra autoa ekoizten duten bi lantokitan, Bochum (Alemania) eta Anberes (Belgika) hirietan.

## LABURREAN

### Bilboko Erakustazokak eta Baionako Merkataritza Ganberak akordioa izenpetu dute

Baionako Merkataritza Ganberako lehendakari Jean-Marie Berckmans eta Bilboko Erakustazokako Iñaki Irustak hitzarmena izenpetu zuten atzo Baionan. Merkataritza Ganberak Ipar Euskal Herriko eta Akitaniako enpresak Bilboko nazioarteko azoketan parte hartzea bultzatuko ditu. Urtero hainbat jardueratako egitarau bat landuko dute bi aldeek elkarrekin.

### Michelinen izandako eztanda batean larri zauritu da langile bat

Lasarteko Michelinen lantegian lan istripua jazo zen atzo, goizeko 10:00ak inguruan. Oraindik zergatik ez dakitela, leherketa bat izan zen, eta ezta soldatze lanetan zebilen behargin bati aurpegi eta eskuetan erredura larriak eragin zizkion. Anbulantzia batek Donostiako Poliklinikara eraman zuen. Langileak, Michelinen lan egin arren, Milaz azpikontratarentzat egiten zuen lana.

### Gaur Gipuzkoako EHNEk ezohiko bilera egingo du Tolosan, harremanen etena aztertzeke

Ezohiko bilera du Gipuzkoako EHNEk gaur Tolosan, sindikatuaren barneko harremanen etena aztertzeke. Iragan abenduaren 4an Bizkaiko eta Nafarroako EHNEk eta Arabako UAGAK Gipuzkoako erakundearekin harremanak haustea erabaki zuten, *Ardatza*-n argitaratutako gutun ireki batean jakinarazi zenez. Besteak beste, lan eta erabaki koordinatuak ez betetzea leporatzen diote EHNE-Gipuzkoari.

## FINANTZAK

### Banco Guipuzcoanok 31,89 milioi euro irabazi zituen iaz, 2000. urtean baino %13,8 gehiago

Erredakzioa | DONOSTIA

Banco Guipuzcoano taldeak 31,89 milioi euroko irabaziak izan zituen iaz (5.306 milioi pezeta), aurreko urteko datuekin alderatuta %13,8 gehiago, finantza erakundeak emandako informazioaren arabera.

Mozkin gordinei dagokienez, 45,15 milioi euro lortu zituen (7.511 milioi pezeta), eta %19,8ko hazkundera iritsi. Emaitza horrekin, Banco Guipuzcoanorentzat ondo amaitu da 1999-2001 urte bitarteko estrategia plana, 1998. urtekoarekin erkatuz gero %50 egin baitute gora irabazi gordinez.

Negozioaren zabalkundera %5,3 hazi zen iragan urtean. Era berean, kreditu inbertsioa 2.517,72 milioi eurora (418.914 milioi pezeta) ailegatu zen, aurreko urtearen aldean %15,2 gora eginez. Bezeroentzat kudeatutako baliabideek %8 egin zuten gora, eta 4.085,41 milioi euroko balioa lortu.

Iaz urte zaila izan zen balio merkatuentzat, baina Banco Guipuzcoanok finantza eragiketen emaitzak %309,2 igo ziren. Guztira, burtsan 2,99 milioi euro (498 milioi pezeta) eskuratu zituen finantza talde gipuzkoarrak. Zerbitzu komisiotan, alderantziz, %4,8 gutxiago lortu zuen, aurreko urteko datuekin alderatuta: guztira, 41,39 milioi euro.

Banco Guipuzcoanok adierazi zuen bere akzioek %20,8 egin zutela gora, eta akzioak 19,8 eurotan amaitu zuen urtea.

Ustiapen gastuak %3,2 murriztu zituen, eta, azkenean, 81,84 milioi eurokoak izan ziren (13.617 milioi pezeta). Horregatik, efizientzia ratioa %54,8koa izan zen, hiru urteko estrategia planak ezarritako helburua (%55) baino apalagoa.

**BURTSA.** Argentinako ekaitzaren erdian, lasaitasuna nagusitu zen atzo

## Karakola falta

J. B. Andueza |

Karakola falta zela, barea izan zen atzoko saioa, lasaia. Tentsio unerik izan zen halere, Argentinaren itxura txarra eta Greenspanen hitzaldia zirela medio. Espainiako KPI %2,7koa izateari, ordea, ez zion jaramon handirik egin burtsak, eta Ibex-35ak 8.000ko maila berreskuratu du.


Itxura guztien arabera, atzeritarren salmentak izan dira azken egunotan jaitzieren eragile nagusi. Telefonica (+%1,36) eta Repsol (+%2,56) pareak askoren babesa jaso du; banku handien pareak ez horrenbeste. Izan ere, ez dirudi Argentinako foiletoia berehala bukatzekoa denik. Barea bera desagertzea ez litzateke harriztekoa.

## DATUA

**La Caixa** aurrezki kutzak Repsol-YPFren %12,5eko partaidetza erdietsi du. BBVak %9,9, Iberdrolak %3,5 eta Kutxak %1,6 dute. Beraz, kataluniarrak dira petrolio enpresaren jabe nagusiak, eta 270 milioi euroko hornidura egin dute Argentinako debaluazioaz babesteko.

### Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%0,40** | Azken indizea **1.405,20** | Aurreko indizea **1.399,66**



### Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.069,38 (-%0,02)
Tokio (Nikkei)	10.441,59 (-%2,09)
Madrid (IBEX-35)	7.983,1 (+%0,60)
Paris (CAC-40)	4.554,69 (+%0,87)
Londres (FTSE 100)	5.198,6 (+%0,15)
Frankfurt (DAX)	5.209,97 (-%0,35)
Milan (Mibtel)	22.771 (+%0,62)

\* Eguerdira arte

### Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	0,8919
Libra Esterlina	0,6179
100 Yen (Japonia)	1,1782